

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Sherlock Holmesen itzalean



Ezkerrean, Arthur Conan Doyle idazlearen argazkia; Doyle duela 150 urte jaio zen. Eskuinean, Sherlock Holmes, eskoziarraren pertsonaia aski ezaguna, sortzaileak berak baino ospe handiagoa lortu zuena.

EDINBURGO (ESKOZIA), 1859KO MAIATZAREN 22A. Arthur Conan Doyle jaio zen. Ama irlandarra zuen, eta aita ingelesa. Medikuntza ikasi zuen eta, besteak beste, oftalmologo aritu zen, baita Artikoko baleontzi batean mediku ere. Bitan ezkondu zen eta bost seme-alaba izan zituen. Hiru gerratan zuzenean parte hartzea egokitu zitzaion. Alderdi liberalaren hautagai izan zen, baina ez zuen kargurik lortu. Katolizismoa baztertu eta okultismoa gogoz defendatu zuen. Kirolari amorratua zen eta boxeoa, automobilismoa, futbolea eta eskian aritu zen, besteak beste. Horrez guztiaz gain, oso idazle oparoa izan zen: 60 liburutik gora idatzi zituen, fikziozkoak eta saiakera historiko nahiz garaikidekoak. Sir Arthur Conan Doyle 1930eko uztailaren 7an hil zen Crowborough-en (Ingalaterra), hainbat nobela idazteko moduko curriculum ikusgarria utzita.

Baina bizitza mamitsu hura inoizko detektiberik ospetsuenak, Sherlock Holmesek, lausotu zuen, Doylek berak sortutako fenomeno gorrotatzeraino. Baina zergatik hil zuen aitak fikziozko semea? Holmes bera baino ospetsuago bihurtu zelako? Detektibe bere *alter ego*-tzat jotzeaz nazkatuta zegoelako? Ala, amari idatzi bezala, “irudimena

agortzen” ziolako? Arrazoiak arrazoi, Moriarty doktoarek Sherlock Holmes hil zuen *The Final Problem* nobelan.


Baina herritarrek protesta egin zuten eta Doylek ezin izan zion publikoari muzin egin. 1899an detektibe berpiztu zuen *The Hound of the Baskervilles* nobelan. Arrakasta editorial izugarria lortu zuen. Baina Doylek dedukzio gaitasun bikainak ere ez zuen aurreikusi handik 100 urtera gertatu zena.

2000. urtean Rodger Garrick-Steele psikologo erretiratuak Arthur Conan Doyle plagioatik eta hilketatik akusatu zuen. Holmes berpiztu baino urtebete lehenago, Doyle lagun Bertram Fletcher Robinson idazle eta kazetariak *An adventure on Dartmoor* eskuizkribua idatzi zuen. Garrick-Steele ustez, Doylek nobela arrakastatsua Robinsonen lanaren plagioa zen. Gainera, Robinson handik gutxira hil zen, 37 urte baino ez zituela. Salatariaren iritziz, Doylek Robinson hil zuen, ederki ezagutzen zuen pozoia, laudanoa, erabiliz. Scotland Yard-ek akusazioak atzera bota zituen, akusatua 70 urte lehenago hil zela argudiatuz. Halako atzerapenez Sherlock Holmesena egiteak ez zuen zentzurik.

Arrastoak

XVIII. eta XIX. mendeak jokoan

HISTORIAN oinarritzen diren bideojokoaren artean Erromatar Inperioaren eta Bigarren Mundu Gerraren ingurukoak dira nagusi. Bada, oraintsu argitaratu diren bi jokok XVIII. eta XIX. mendeko Europako gatazkak dituzte oinarri. *Empire: Total War* jokoak XVIII. mendeko gerrak biltzen ditu, baina elementu militarrez gain, politika, diplomazia eta ekonomia ere kontuan hartzen ditu. *Commander: Napoleon at war* jokoak, aldiz, Napoleonen kanpaina militarrei buruzkoa da. Joko horretan, gatazken baldintzak benetako datu historikoetan oinarrituta daude.



Goian, *Empire: Total War* bideojokoaren irudi bat; azpian, *Commander: Napoleon at war* jokoarena.